


Aretxagazeta

Internet: www.saretxo.es/aretxagazeta
e-mail: aretxagazeta@saretxo.es

Aretxabaleta • 1999ko uztaflak-22 • 172. zka.



Baserritik bizitzearen neke eta gozoak

horma armairuak



tolesgarriak

*horma armairu
irristagarriak*



**AZKARATE
AROSZTEGIA**

ARETXABALETA 943 77 01 24
BERGARA 943 76 47 19


*Ateak, leihoak,
horma armairuak, tarimak
eta parketak*

ARDATZA
Brikolaketa

Masterreka, 4 behe. Tf.: 943 76 18 93 • BERGARA



OPORRAK
*Abuztuaren 9tik 23rarte
itxita egongo da*



EGUSKIGRAF
inprimategia

Tfnoa.: 943 79 18 44
Faxa: 943 79 29 41
E-mail: info@eguzkigraf.com

Araba Ibilbidea
20550 ARETXABALETA
Industrialdea F-0-4




Posible da baserriak soilik bizitzea? Baserriko ala lantegiko lana, zer nahiago duzu?

Marcelino Ugalde

(Ugalde-enea baserrikoa)

Edukitzen diren instalazioen arabera eta egindako inbertsioen arabera. Asko inbertitu behar da eta produktu ezberdinak ekoiztu behar dira. Honela bai, bizi daiteke baserriak. Nik, neure aldetik, nahiago dut baserrian aritu lantegian baino.



Nerea Madinabeitia

(Basabe baserria)


Gaur egun oso zaila da. Soro eta animalia asko izanez gero agian bai, baina bestela oso zaila da, batez ere gaur egun baserriak diren modukoak kontuan izanda. Lanari dagokionez, ez nuke baserrian soilik lan egingo.



Jesus Mari Alberdi

(Zaloña aurrekoa baserrikoa)


Lur eta ganadu asko izanez gero bai, bestela ez. Gaur egun baserriko kontuak nahikoa gaizki daude. Hala ere, nahiago dut baserrian lan egin lantegian baino. Bietan aritzen naiz, baserrian eta lantegian, eta baserrikoa gehiago gustatzen zait.



Pablo Garai

(Sologeizto baserria)

Segun eta baserria nola dagoen antolatuta. Terrenotan 8-10 hektarea lantzeko izanez gero eta beste 30 bat baso eta animalientzako bai. Honela ondo bizi daiteke eta baita dirua aurreratu ere. Bestalde, lantegiko lana errazagoa da baina nahiago baserrikoa.



eskutitza



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak
diruz lagundutako
aldizkaria



Aretxabaletako
Udalak diruz
lagundutako
aldizkaria

Oporretan ere Euskal Presoak Euskal Herrira

Idatzi honen bidez, "Euskal Presoak Euskal Herrira Aretxabaletako Plataformak" Aretxabaletako herritarrei zenbait gauza eskertu, gogoratu eta eskatu nahi dizkizuegu.

Lehenik eta behin eskerrak eman, plataforma eratu eta aurkeztu zen unetik gaurko egunera arte egin diren ekintzak antolatzeko laguntza paregabea eskaini duzuen herritar guztioi. Era berean, eskerrak baita ere, burututako egitasmoetan parte-hartutako erkideei.

Gogora ekarri nahi genuke, zoritxarrez euskal preso gehienek, oraindik ere Euskal Herritik urrun jarraitzeaz gain, ez dutela oporraldirik inongo espetzetan. Horretatik, garrantzitsua eta mesedegarria izango litzateke, oporretan gauden herritar guztioi, oporretako postala idaztea herriko presoek, Kepa Urria atxabaltarra barne delarik.

Honekin batera, esan, gonbidatuta zaudetela guz-

tiok, Andramaixetan "Euskal Presoak Euskal Herrira" lemapean antolatuta dagoen manifestaldian parte hartzea.

Eta azkenik, oporraldiak urte guztian zenbait arrazoiatik lasaitasunean egin ezin izan diren gauzak pentsatu ahal izateko egun egokiak direla ikusirik, zertxobait eskatu nahi dizuegu, hau da, eguneroko lasaitasun horretatik txokotxo bat gordetzea irailetik aurrera Euskal Presoak Euskal Herriratzeko zer egin eta ideia berriak pentsatzeko. Plataforma osatzen dugun guztioi irrikitan gaude ekintza, ideia eta indar berri horiek elkarlan eta borondate bihurtu daitezen, Kepa Urria eta euskal Preso guztiak Euskal Herriratzeko.

Eskerrik asko.

EPEHAP

Kepa Urria Guridi
Centro Penitenciario Madrid III modulo 6
Carretera De Pinto a San Martin de la Vega km 5
28.340 Valdemoro (Madrid)

Aretxagazeta aldizkaria. **Argitaratzailea:** Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarte. Durana 11, 151 postakutxatila Aretxabaleta. Tfnoa: 943-79 86 21 Faxa: 943 77 18 54. **Erredakzio-kontseilua:** Gurutze Larrinaga, Koldo Zubizarreta, Aitor Irure, Gotzone Arrese, Gorka Etxabe, Begoña Arenaza, Arrate Arkauz, Aintzane Lasa, Pello Zubizarreta, Arantza Antxia. **Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:** Monika Belastegi eta Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroia, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Amaia Berezibar, Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Inprimategia:** Eguzkigraf, Koop. Elk. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. **ISSN:** 1134-2609. **Internet:** www.saretxo.es/aretxagazeta **e-mail:** aretxagazeta@saretxo.es. Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



Aretxagazeta

Andramaixak gero eta hurbilago eta peto-peto

Abuztu erdian, 14tik 17ra bitartean horrenbeste itxarondako Andramaixak izango ditugu geure artean. *Eider eta Ohiana* trikitilariak, *Trio Txarango*, *Bolero's 4*, *Los 5 Bilbainos*, *Betagarri*, *Trikitixa Kontrairu* eta beste hainbat musika talde izango dira jaiak irauten duten lau egunetan zehar. Bestelako ikuskizunak ere makina bat izango dira: haurrentzako parkea, bolo txapelketa, herri bazkaria, an-

Kale animazio eta antzezlan ugari izango da aurtengo Andramaixetan. Inoiz Atxabaltan izan gabeko taldeak, batzuk, baita antzezlan berriekin errepikatzen dutenak ere. Azken batean, adin guztietan pentsatuta ekarritako antzerki taldeen lanak ikusi ahal izango dira Andramaixetan.

Los locos años 20: Taldea sei aktore eta banda batek osatzen dute. Kale animaziorako antzerki bat da. Charlestonaren eta alkohola debekatu zuten garaian kokatzen da. Garaiko gangsterrak, poliziak, klubetako neskek, gangsterren hilketak eta batez ere ikusleen partehartzea dira nagusi. Abuztuak 15 arratsaldeko 19:30ean Durana eta Mitarte kaleetan.



Mukikrossa: Hankagorri taldearen eskutik heldu zaigu dagoeneko Mukikrossaren eguna, munduko barraskilo lasterketaren egun handia. Hamar urtetik behin ospatzen da eta aurtengo Andramaixetan egingo da. Ez galdu ikusteko aukera, sekulako zirku itoa antolatzen baita lasterketa berezi honetan. Hiru barraskilok hartuko dute parte: Tximistek, Mukik eta Babaxek. Ez ahaztu bainujantzia eramatea. Abuztuak 17, 12:30ean Mitarte plazan.

Anbotoko Dama: Panta Rhei taldearen azken antzezlan. Partehartzea, ikusgarritasuna, mugimendua eta komunikazioa dira Panta Rhei taldearen produkzio berri honen elementu nagusiak. Ihauterietan eta euskal mitologiako pertsonaia oinarrituz, haurren joko eta abenturen menturan jartzen dira. Abuztuak 16, 12:30ean plazan.

tezlan asko, txosnak, suzko erroberak, sokamuturra... adin eta gusto guztiak kontuan hartzen dituen jai egitaraua prestatu dute Jai Batzordeko kideek Udaleko Kultur Sailarekin elkarlanean. Jai politik ospatzeko egitaraua prest edukita, Andramaixak helduek ez zaigu gelditzen. Eta ziur laster helduko direla; oporrak tartean ditugula kontuan izanda batez ere.



Fidegua izango da aurtengo jaietako herri bazkarioko jai nagusia. Urtero gisa, bazkaria jaietako azken egunetan egingo da, 17an hain zuzen, eta dohainik izango da. Fidegua erraldoia herriko plazan prestatuko da eta iazko enpresa beharrean, beste bat arduratuko da bazkaria prestatzeaz. Bazkari ostean, Txan Handia magoak saioa eskainiko du eta zinta karrera eta futbol txapelketa ere izango dira.

Hauxe dugu aurtengo Andramaixetako kartel iragarlea. Egileak, Mireia Valle, Yera Sanchez eta Leire Blazquez 17 urteko gazteak dira eta iaz ere hirukote honek eraman zuen lehenengo saria. Dagoeneko lau bat aldiz aurkeztu dira eta aurtengo arazoren bat ere izan dute kartela aurkezteko orduan; izan ere, behin irudia amaitu ostean hondatu egin zitzaizkien azken unean, eta bi orduetan berregin behar izan zuten. Irudia tenperaz egin dute eta oso kolore biziak erabili dituzte, larua batez ere. Aitortu dutenaren arabera, jasotako saria jai eta oporretan gastatuko dute. Zorionak!




Portasolgo jaiei agur datorren urtera bitartean



Umeeek izan zuten non gozatu Portasolgo jaietan. Dantza saioak, jokoak, buruhandiak... makina bat gauza izan zen beraientzat eta beraiekin pentsatuz antolatutakoa. Argazkian ageri den bezala, buruhandiak gogor aritu ziren, eta neska-mutikoez takarrara batean ibili ziren hauen aurretik.



Muslari ugari dago Atxabaltan, Portasoloren jokaturako txapelketak erakutsi zuen bezala. 52 bikotek hartu zuten parte, 104 pertsonak, atera hortik kontuak. Txapelketan lau sari oso dotore banatu ziren: lehenengoa, Emilio Casal eta Ricardo Barkerok eraman zuten, bigarrena, Carlos Diaz eta Rodrigo Fernandezek, hirugarrena Aitor Irure eta Jon Armentientzat izan zen, eta auzoko bikote onenarena Xabier Etxabe eta Alberto Asensiok eraman zuten.



Larunbat goiz eta arratsaldean, sokamuturra izan genuen Portasolgo jaien egitarauaren barruan urtero bezala. Jende ugari bildu zen Araba ibilbidera sokamuturra ikustera, hesiaren atzekaldetik gehiengoa, baina izan zen, bai, ausartik ere, eta bigantxa majo toreatu zuten. Honelakoetan ohikoa den bezala, sustoren bat edo beste hartu zuen batek baino gehiagok, baina zorionez, ezer larririk ez zitzaion inori



LASAGABASTER-en

AUKERARIK ONENA

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE TFNOAK.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Bihar udalekuei agur

Primeran pasatu dute aurtengo udalekueetan parte hartu duten ia 200 neska-mutikoeak. Goizak eta arratsaldeak jolasean pasatu dituzte, haurrek zein begiraleek.

Euskara, Ura eta San Fermin bezalako egunek arrakasta handia izan dute aurten ere, Kepa Errasti arduradunak esan bezalaxe. Horrez gain, nagusienek Arrasateko igerilekuetara joateko aukera ere izan dute bi egunetan eta baita Galartzako dorretxean gau bat

pasatzeko ere.

Udalekuak bukatzeko bi egun falta direla, gaur eguna, Donostiara txangoa egin dute; akuarima ikusi, Santa Clara bisitatu... Horrez guztiaz gain, bihar udalekuei amaiera emateko azken jaia ospatuko da Zاراia zineman.

Udalekuak espero bezala joan dira, Kepak esan bezala, "nik uste dut umeek oso ondo pasa dutela eta horixe da azken finean garrantzitsuena".



Bihar udalekueetako Azken jaia ospatuko da Zاراia zineman

Neskato bat bortxatu dute ostiralean

Pasa den ostiralean, Arrasatekoak izan daitezkeen gazte batzuek hamazazpi urteko Aretxabaletako neska bat bortxatu zuten. Deba Garaiko Bailarako Ospitalean miaketa egin ostean, salaketa jarri zuten neskaren gurasoek Arrasateko Ertzaindegian. Ertzaintza hasi da ikerketa lanetan, nahiz eta oraindik ez duen inor atxilotu.

Aretxagazetara postal bat bidali eta sari bat jasoko duzu

Oporren atarian gaude eta dagoneko zuetako asko eta askok prest du egun lasai batzuk igarotzeko bidaiaren bat antolatuta. Mendian, hondartzan, desertuan, irla galduren batean... zaudeten tokian zaudetela ere, Aretxagazetak berarekin gogoratzeko zartela jakin nahi du, eta zer hoberik postal bat bidaltzea baino? Jasotako postal guztien artean bi lagunentzako afaria zozketatuko da. Helbidea badakizue, Durana 11 edota 151 postakutxatila.

Xuxen zuzentzailea atxabaltarren esku artean

Euskal Herriko Unibertsitateko Informatika Fakultateko IxA taldeak Xuxen zuzentzaile ortografikoaren bigarren bertsioa aurkeztu berri du. Atxabaltar bat ere bada IxA lantaldearen barruan, Miriam Urkia hain zuzen ere. 1994. urtean jaio zen Xuxen, eta berau da gaur eguneko euskararako dagoen zuzentzaile

ortografiko bakarra. Miriam Urkiak taldeko gainontzeko kideekin batera garatutako bertsio berria Office 97 paketearen integratzen da, eta Interneten ere denon eskuragarri jarri dute http://www.euskadi.net/euskara-hizt/indice_hm helbidean.

Xuxen-en helburua, euskaraz idatzitako testuen akats ortografikoak

antzeraman eta zuzentzea da, ahalik eta modu eroso zein eraginkorrean. Programak ez du akats sintaktiko edo semantikorik detektatzen, eta euskara batuaren erabilpena bultzatzen duenez, Euskaltzaindiaren azken erabakiak barne, ez ditu ontzat ematen forma dialektalak, nahiz eta batzuk ezagutu.



Zulia

Oinetakoak

Poltsak • zapatak • gerrikoak

Mitarte 14 • ☎ 943 79 16 00 ARETXABALETA
Biteri 1 • ☎ 943 79 66 53 ARRASATE

BENGOA URDAITEGIA

*Bertako okelak eta
mortzilak*

Durana, 9
Tfnoa: 943 79 19 79



MEMESA

Industri hornidurak

Tfnoa: 943 71 24 11
ARETXABALETA

Coprecik Zilarrezko Qa jaso du Eusko Jaurlaritzatik

Eusko Jaurlaritzako Industria Saileko ordezkariak asteazkenean izan ziren Coprecin

Copreci kooperatibak *Kalitatezko Zilarrezko Q*-a jaso berri du Eusko Jaurlaritzako Industria Sailaren eskutik. Euskaliteko Ebaluatzaile Clubak (Kalitaterako Euskal Fundazioa) egindako kanpo ebaluaketaren arabera, Coprecik Kalitatearen Kudeaketarako Eredu Europearraren 450 puntuak gainditu ostean jaso du Zilarrezko Qa.

Club 400ek, Kudeaketarako Eredu Europarra erabiltzen duten Euskal Autonomi Erkidegoko gestio garatuenerako erakunde eta enpresak biltzen ditu bere baitan. Bere helburua, erakunde eta enpresa hauen kudeaketa sistema ebaluatu eta hobetzea da. Puntuaketa taulako 400 puntuak gainditzen dituztenek Eusko Jaurlaritzako Zilarrezko Qa jasotzen dute.

Kalitatea oinarritzako estrategia

1989. urtetik aurrea kalitatea izan da Coprecin zio eta estrategia, batez ere hiru oinarritan sostengatuz: zerbitzua, kalitatea eta eraberritze etengabea.

Coprecik 90eko hamarkadaren hasieran Kalitatezko Eredu



Coprecik Kalitatearen Kudeaketarako Eredu Europearraren 450 puntuak lortu ditu

Europarra hartu zuen. Prozesu honen baitan, 1996. urtean, Ingurugiroaren Kudeaketa Sistema ezarri zen, eta gutxira ISO-14.000 Ingurugiroaren Kudeaketa Ziurtagiria eskuratu zuen. Era berean, 1997. urtean, Hornitzaileen Kalitate Kudeaketa ezarri zen. Honela, enpresako barne eta kanpoko arlo guztietara hedatu ziren kalitaterako arau eta betebeharrak.

Erabateko kalitaterako bide honetan, Industria Kalitateko Principe Felipe Saria ere jaso zuen

1994. urtean; bere kategorian dagoen sari nagusia.

Esportazioak nagusi

Pasa den urtean, Coprecik Atxabantan duen lantegiak 15.235 milioi pezeta fakturatu zituen. Aipatutako kopurutik, 10.407 milioi, hau da, %68, esportazioetatik jaso ziren. Izan ere, Copreciko etxetresna elektrikoetako batzuk, lehen, bigarren eta hirugarren postuak betetzen dituzte gailu mota hauentzako osagarrien fabrikanteen artean.

Lasai

Miriam Mantecosa
MASAJISTA

Masaje terapeutikoan
Posturen azterketa eta
egokitzean
diplomaturak

Lezama merkatal zentrua
Santa Kurtz, 24 etxabea
20550 Aretxabaleta

Tfnoa: 943 77 04 34

BEIRALAN



- ◆ Komunerako altzari eta manparak
- ◆ Ispiludun armairu aurrealdeak
- ◆ Beirate artistikoak
- ◆ Salarako mahaiaik

KRISTALDEGIA

Herriko plaza, 8 behea
☎ 943 79 81 78 ARETXABAleta

PAGALDAI

Opari denda

Durana, 33 ☎ 943 79 10 14
ARETXABAleta



MAPFRE

Aseguroak

Errekabarren, 3
Tfnoa: 943 77 11 76

GEMES

- Depilazio elektrikoa
- Makilaia permanentea
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 943 79 99 18
Aretxabaleta

IRIARTE

Umeen
denda



Durana, 8 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 79 10 96

Luis Ugarte

Naturarekiko harreman zuzena

- Zein da basozainaren lana?

-Natura eta ingurugiro arloan kontrol bat eramatea. Kontrol honen arabera, hainbat arau daude eta guk hauek betetzen diren begiratzen dugu. Hau izango litzateke gure lana orokorrean hitzeginda, izan ere, arlo nagusi horren barruan lan espezifikokoak izaten baititugu basozainok. Honela, forestal mailan edota ehiza eta arrantzan aritu gaitzke, bakoitzak dituen arazo eta lan guztiekin. Beraz, eta basozaina izanik, kasu,lehenik eta behin basozain bakoitzak zehazki berari dagokion arloan jardun behar du, honi dagozkion zereginetan. Adibidez, ni forestal mailan aritzen banaiz, eta parean sute bat eta errekan isurketa bat tokatzen bazaizkit, lehenik eta behin sutera joko dut, hori baita nire arloa, eta ehiza eta arrantzakoak isurketara. Noski, edozergatik ehiza eta arrantzakoak etorriko ez balira, sutearen ostean isurketaz ere arduratu beharko nintzateke.

- Zuk zehazki zein arlotan diharduzu?

- Forestal mailan aritzen naiz. Zazpi urte eman ditut ehiza eta arrantzan. Orain, beraz, basoaz arduratzen naiz lehen faunaz arduratzen nintzen bezala.

- Zein da dagokizun eremu?

- Gipuzkoan lur eremuak oso banatuta daude. Deba Garaiko bailarari dagokionez, basozain batek Bergara, Antzuola eta Elgetako lurak eramate ditu. Beste batek Gatzaga eta Eskoriatzakoak, hirugarren basozain batek Oñatikoak, eta niri, Aretxabaleta eta Arrasateko zonaldekoak dagozkit. Banaketa hau udalerrri bakoitzaren lur estensioaren eta bertan sortzen den lan kopuruaren arabera da.

- Udan gaudela eta Aretxabaleta inguruan suteak izateko arriskurik bada?

- Gipuzkoa mailan, Jaizkibel eta beste zuhaitzik gabeko mendi bakaren batzuk izan ezik, ez da arriskurik izaten udan. Belarra oso berde izaten da hemen udan, eta sua egiteko ez da batere erregai ona berde dagoenean. Arriskutsua egon daiteke eguzki handia dagoenean, baina sua nahita emango bagenio ere, belar berdeak,



Luis Ugartek 40 urte ditu eta horietatik 16 daramatza basozain. Naturzalea, brinkolar honek Legazpi eta Oñatiko basoetan barna aritu ostean Aretxabaletan dihardu gaur egun. Ehiza eta arrantza sailean zazpi urte eman ostean, forestal arloa da orain dagokiona.

berak, freno gisa funtzionatuko luke. Neguan, aldiz, kontrakoa gertatzen da, urtarrila aldera, izotzak belarra lehortu egiten du, eta lehenengo mailako erregai bihurtzen da. Neguan kosta egiten da sua egitea, baina behin sua eginda, erregai izugarria dago.

- Lehen kontrola aipatu duzu, zer eta nola kontrolatzen duzue?

“Insignis pinua da Aretxabaletan dagoen zuhaitzik ugariena, nahiz eta Euskal Herriko zuhaitz mota gehienak aurki daitetzkeen, ale bakan batzuk badira ere”

- Indarrean dauden arauak betetzeko kontrolak egiten ditugu, eta arauak betetzen ez diren kasuetan informeak egiten.

Kontrolatzen ditugun gauzen artean, su egiteak daude. Sua egiteko baldintza batzuk bete behar dira eta baimenak eskatu. Gauza bera gertatzen da zuhaitz mozketekin. Gipuzkoan gaur egun ezin da zuhaitzik moztu baimenik gabe.

- Zer nolako isunak ezartzen dira arauak bete ezean?

- Egiten den kaltea hiru aldiz gehiago ordaindu behar da. Adibidez, neure baserrian hiru haritz bota baditut, hosto zabaleko zuhaitzak gainera bota ezin direla kontuan izanda, zuhaitzaren balioa pezetetan bider hiru ordaindu beharko nuke. Eta horrez gain lehenengo lekuan berriz ere zuhaitz bat landatu. Zuhaitzekin baremo hau erabiltzen da eta ehiza eta arrantzan, animalia motaren arabera isuna jartzen da.

- Aretxabaleta inguruetan zein zuhaitz mota aurki daiteke?

- Begi bistan dago insignis pinua dela ugariena. Zuhaitz mota bezala oraindik asko dago, “Euskal Herriko Zuhaitzen Gida” hartuz gero guztiak aurki daitezke, gertatzen dena da multzo txikitari edo bakoitzeko bakan batzuk besterik ez daudela.

- Baserriarekin administrazioak ez al du zorrotzegi jokatzeko?

- Baserriarra ez da lehen zena. Bete beharreko arau guztiak ondo dakizki, baina inozoarena egiten du. Hala ere, arauak ere badute malgutasunik. Administrazioak gainera kontrol bat eramatea derrigorrezkoa da. Begira bestela bost urtetik hona egurrekin gertatu dena. Egur izugarri mordoa ebaki da urte gutxitan. Egur guztia urte gutxi bazuatan agortu behar dugu, bada? Kontrol bat beharrezkoa da, eta horretarako baimenak eskatu beharra ere bai.



IKATZ

FOTOGRAFIA • IMAGEN

ERREBELATUAN ESKAINTZA



**4 Rollo errebelatu eta 3 ordaindu
Banaka ekar ditzakezu**

GASTEIZ

Gorbea, 44 (Esquina Cruz Blanca)

Dendaraba

Plza. Barandiarán, 1

Ecocentro-Ptal. de Villarreal

Jacinto Benavente, 39 (Estudio)

Polvorín Viejo, 9

Denda
berria

BILBO

Alameda de Urquijo, 11
(Coliseo Albia ondoan)

DURANGO

Barrenkale, 26
(Udala ondoan)

Denda
berria

BASAURI

Plz. Arizgoiti, 6

Denda
berria

EIBAR

Julián Etxeberria, 11

ARRASATE


Iturrioz, 8

MIRANDA DE EBRO

San Agustín, 20



IKATZ
FOTOGRAFIA • IMAGEN



“Hainbeste belaunalditan kontatutako ipuina geure artean egingo da errealitate. Herensugea badator berriz Udalatxpera. Larre-lurrak, basoak, mendiak eta menderik mende honetaz ohar-tarazi gaituzten gure arbasoen etxeak txikitzera dator AHT”

Abiadura handian dator Mondragoeko dragoia

Dragoia, herensugea, mostrua... ez dakit zer den, baina kondairaren neure bertsioa badaukat. Umetan amaren jaiotetxean (baserrian) ganaduzain nembilela, Udaltx aldera begira jarrita, behin berriz kontatu izan zidan osabak honako ipuina:

“Gure aittajun-amandrien arbasuek esaten juenez, ba ei jauan inguru honeittako mendi baten 3 buruko herensuge bildurgarri bat. Luzie bezin azkarra, gosie sometan juan bakotxien lurpetik urten eta topautako danak aurrien erueten jittuan: arbolok, pertsonok, ganauok, baserrixok eta batzuk diñueñez, mendi tontorrek be oso osorik jatten ei jittuan.

Akabera bako luzie, zaldirik azkarrrena baino be azkarrua ei zuan lurgainien. Satorrak baino errexau ibiltten ei zuan lurpeien eta mendi tontoretik tontorrerako bidie arranoik trebienak baino samurrau eitten ei juan hegan. Bildur eta hondamen sasoiak bizi izen zittuan inguru honeittan. Berezko kaltiek gutxi ez eta, haren orruek inguruko animalixa eta etxabere danak uxaketan jittuen, bazterra guzfixak sustauaz.

Kaltiek kalte, hasieran inor ez zuan atrebiruten hari aurre eitten (bestiek beste, aldamenekuek eitteko zain egoitie, euskaldunongan aspaldiko ohittu-

rie dalako). Baina, denporie pasau ahala, hondamenak gain hartuta, inguruetako herritarrak bat ein eta piztitorren bidera urten eta aurre eittie erabaki juen. Halako jendetzie ikusitta urrineko lurraldietara ihes ein eta zati baterako hona bueltetako gogue kendu jutzien. Batzuk Frantzia aldera fan ete zan, beste batzuk España aldera (ha ze gosiek pasauko jittuan hara fan bazan) eta beste batzuk itsasora fan eta han desapareziru zala esaten juek.


Hala eta guztiz be, kontuz ibili biherra jaukau; belaunaldiz belaunaldi kontautako ipuin honen bukaeran esaten danez, berrindartutakuen barriro bueltatuko zala agindu ei juan eta dragoiorrek. Ordurako eta ordurarte herritarrok batuta egon biher juau, sekula bueltetan bada indartsu aurre ein ahal izateko”.

Ipuinak, kondairak... zer zekiten gure arbasoek? Zorigaiztokoak gu. Hainbeste belaunalditan kontatutako ipuina geure parean egingo da errealitate. Herensugea badator berriz Udalatxpera. Larre-lurrak, basoak, mendiak eta menderik mende honetaz ohar-tarazi gaituzten gure arbasoen etxeak txikitzera dator AHT.

Gizarajoa besteek egiteko zain da goena.

Jon Ander Loidi

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tfnoa: 943 79 01 51

Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:
Lyonel
Arquero

Dekorazioa:
Soraya
Arquero

Asaba zaharren lanbidea jarraituz

Gero eta gutxiago dira Euskal Herrian baserri-
soilik bizi diren familiak. Nekazari eta abeltzaintzak
etorkizunik ez dutela entzuten da maiz. Izan ere,
baserrian -baserri hitzak duen esanahirik zaba-
lanean ulertuta- bizi direnen adinaren batzbestekoa
55 urtekoa da. Oso gazte gutxi da baserriko lanaren
aukera egiten duena lantegiko beharraren aurrean,

eta urtero-urtero, %5 jaisten da nekazari kopurua.
Hala eta guztiz ere, badira baserria bere horretan
mantendu eta bai geure lurak ematen dituen pro-
duktuak landu edota abeltzaintzara dedikatzen
denik ere, nahiz eta gutxi batzuk izan. Aretxa-
baletan, esaterako, badugu honelako adibide bat;
Abasolo familia.

Urkuluko urtegitik gora,
Areantza auzoan bizi dira. Guraso-
engandik Etxebarri baserria oinor-
detzan hartu eta behiekin esnearen
produkzioan dihardute.

210 buru dituzte gutzira, haue-
tatik 110 behi, 95 batzen eta 15 an-
tzu eta beste ehunen bat biga. Ani-
malia hauek guztiak etxean jaiokak
dira, eta honen garrantzia azpi-
marratu du Julen Abasolo baserriko
semeetako batek, izan ere,
"kanpoko behiak sartuz gero,
gaisotasun berriak ekar ditzakete
eta hau kaltegarria da oso. Nor-
berarenak, aldiz, kontrolatuta dau-
de".

Behi andana hau era egoki bate-
an izateko, lursailak ere beharrezko-
ak dira. Abasolo familiak, 80 bat
hektarea darabiltza, 6 beraienak eta
gainontzekoak errentan hartuak.
Lursail hauek behientzat belarra
izateko behar dituzte eta baita
behiak edukitzeko ere.

Julen Abasolok esandakoaren
arabera, behiak zelaietan edukitzeko
joera dute euren etxean. Azken bola-
dan ba omen da joera bat behiak
ikuilu barruan edukitzekoa, baina
eurak ez dira horren aldekoak. Euren
iritziz, txahal zein bigak oso erraz
eta ondo hazten dira zelaietan, eta
baita esnetan dabilzan behiak ere.
Horrez gain, eta belarrarekin lotuta,



Julenek 200 behi buru inguru ditu eta esne produkzioa da bere lanbidea

urtaroarekiko menpekotasuna gutxi-
tu egin dela gaineratu du Julenek.
Azken batean, lehen zelaietan belarra
zegoenean esnea ematen zuten
behiak, baina belarrak ez zegoenean
esne kopurua asko jaisten zen. Orain,
ordea, erositako generoarekin kon-
trolatu daiteke, hau da, zelaietan be-
larrak ez dagoenean etxean ematen
zaio behiari jaten, eta zelaietan be-
larrak dagoenean etxean gutxiago. Ondo-
rioz, etengabe ematen dute behiek
esnea.

3.000 litro esne egunero

Etxebarrin ateratzen duten esne
kopuruari dagokionez 95 behi inguru
dituzte esnea emateko moduan.
Hauek egunero jaisten dituzte bi
aldiz, goizez eta arratsaldean, eta
3.000 litro esne lortzen dute.

Arestian aipatu bezala, behi
guztiak etxeokak dira, etxean
sortuak, eta orotara 110 txahal
inguru jaiotzen dira urtero. Hauetatik
erdiak rusak dira eta beste erdiak
zekorrak. Honela, eta esnea produzi-



Gero eta gutxiago dira Euskal herrian baserritik soilik bizi diren familiak. Nekazaritza eta abeltzaintzak etorkizunik ez omen duelako. Abasolotarrek, horren aldeko apostua egin dute eta esne produkzioan aritzen dira.

tzea dutenez helburu, zekorrek kendu egiten dituzte eta rusak soilki hazi.

Azken hauek, txikitatik eta esnea ematen hasi artean biga artean izaten dituzte, eta bi urterekin txahalak egiten hasten direnean behipilora pasatzen dira. Hauxe izango litzateke esne produktioetik bizi ahal izateko Abasolotarrek euren behiekin jarraitzen duten zikloa. Horrez gain, daukaten beste helburuetako bat, behiek urtero txahal bat egitearena da.

Esne guztia Iparlatera saldu

Ekoizten duten esne guztia Iparlat-era saltzen dute. Ez dute komertzializazioan jarduten, izan ere, Julenek adierazi duenez, espezializazioerantz jotzea hobe dela uste du beraien kasuan kalitatezko esnea egitea-, arlo asko jorratu beharrean, bere esanetan errentagarriagoa izan baitaiteke nahiz eta erosoagoak egitea ere badela aitortu duen.

Iparlat zentralerako kamioia bi egunean behin joaten zaie baserrira. Bien bitartean, bildutako esne guztia hozkailu batzuetan izaten dute 4 graduko hozberoa.

Honi guztiari etekina atera ahal izateko, hala ere, inbertsio handiak egin behar dira, eta etengabe eraberritu. Abasolotarrek, orain urte eta erdi eraiki zuten instalazio berria. Instalazioa irekia da, ez du paretarik, eta irekia izate honek helburu

“Ezinbestekoa da espezializaziora jotzea baserritik bizi ahal izateko. Bi arrazoi nagusigatik, errentagarritasuna bata eta lana erraztea bestea”

zehatza du: behiak zelaian egongo balira moduan sentitzea.

Behiak dabilozan pasiloetako zoluak parrilazkoak dira, honela, satsa lur azpian dauden 1.000 metro kubikoko biltegian jasotzen da; biltegi honek sei hilateko hondakinak bil ditzake.

Jan sistemaren aurrerapena

Asko aldatu da animaliei jaten emateko era. Gaur egun, behiei jaten eman beharrekoa ez dute Abasolotarrek erabakitzen, esan egiten diete. Behiek jaten duten belarra da soilik Abasolotarrena. Horrez aparte, pentsu fabrikak daude eta hauek pentsua egokitu egiten diote belarrari belarra aztertu ostean; batetik, kontuan hartuta behi bakoitzari nolako esne etekina atera nahi zaion eta bestetik, belarrari falta zaizkion ezaugarriak konpentsatuz. Honela, belar eta pentsu egokituarekin forrajea osatzen da eta behiari jaten eman.

Behin behiaren elikadura prest izanda, makina berezi batean sartzen da osagarri guztiak nahastu eta aska aurrean banazeko.


Nahasketa eta banaketa makina berak egiten ditu eta behin banatzearekin nahikoa da egun osorako jakia izan dezaten animaliek, honela lana aurreztuz. Azken batean, makina, janari kopuru egokia emateko programatu daiteke. Horrez gain, behiek duten belarrirako bat

Julenek betidanik ezagutu du baserria, bertan jaio eta bizi izan baita. Aita izan zen behietatik etekina atera zitekeela ikusi zuen lehenengoa. Gerora, orain 20ren bat urte, Julen eta bere anaiak eman zioten jarraipena aitak hasitakoari.

Hala ere, asko aldatu da aitaren garaitik behiekin negozioa egiteko era, baita ernalketa bera ere.

Behiak ernaltzeko orduan, prozedura artifiziala erabiltzen dute.

Derioko enpresa batean erosten dute hazia, eta jatorri ezaguneko izaten da beti, izan ere, katalogatuta dauzkate zekorrak.



dela medio, behi bakoitzak behar duen janari kopurua ere jakin daiteke, batzuek beste batzuek baino gehiago behar baitute.

Behiak ernaltzeko orduan, proze-

dura artifiziala erabiltzen dute. Derioko enpresa batean erosten dute hazia, eta jatorri ezaguneko izaten da beti, izan ere, katalogatuta dauzkate zekorrak.

Aitaren jarraitzaile

Julenek betidanik ezagutu du baserria, bertan jaio eta bizi izan baita. Aita izan zen behietatik etekina atera zitekeela ikusi zuen lehenengoa. Gerora, orain 20ren bat urte, Julen eta bere anaiak eman zioten jarraipena aitak hasitakoari. Hastapenetako instalazioak nahikoa sinpleak zirela esan digu Julenek, hala ere, instalazio berrietara jo behar izan dute, arrazoi hauengatik: ehundik gora burura heltzea, behiak genetikoki gero eta perfektuagoak izatean exijenteagoak bihurtzea, eta Europako arautegia.




Baserritik bizi daiteke

Inbertsio handiak eskatzen dituen arren, bizitzeko adina ematen duela esan du Julenek, nahiz eta inguruko beste edozein negoziorekin alderatuz, negozio txiroa izan, eta errentagarritasun gutxiagokoa.

Bestalde, inbertsio berriekin oso pozik azaldu da, esnetan asko igo baitute eta orain denbora libre apur bat ere izan baitezakete, oinarrian oso lan lotua izanik.

Hala ere, eta baserritik bizi ahal izateko espezializaziorantz jo behar dela uste du Julenek, kalitatea oinarri izanik, nahiz eta Euskal Herriko baserri tradizioarekin apurtzea dela aitortu. "Espezializazioak batetik errentagarritasun handiagoa dakar eta bestetik lana erraztea". Bi faktore hauek ezinbestekotzat ditu bide honetan jarduteko.



Inbertsio handiak eskatzen dituen arren, bizitzeko adina ematen duela esan du Julenek, nahiz eta inguruko beste edozein negoziorekin alderatuz, negozio txiroa izan, eta errentagarritasun gutxiagokoa. Inbertsio horretako partetik handiena makinetan egin beharra dago.

Tenisa eta aerobica udako kirol arrakastatsuenak

Kiroletxeak uztaileko antolatutako hainbat kirol ekintzen artean tenisa, igeriketak eta aerobicak izan dute arrakastarik gehiena. Kirol eskaintza 16 urtetik gorakoei eta helduei zuzenduta egon da eta guztira 100 bat lagunek eman du izena.

Golfak ez du arrakasta handirik izan aurten, ez baita talderik sortu. Honekin batera, udaleku ireki moduan aurten lehenengo aldiz antolatu den multi kirola

programak ere ez du erantzun nahikoa jaso eta bertan behera gelditu da. Kiroletxeko kirol teknikariaren esanetan, hurrek eskaintza ugari dituzte uztaileko: udaleku irekiak, bestelako udalekuak, ikastetxeek antolatutako ekintzak... eta kasu honetan eskaintza eskaria baino haundiagoa da. Dena dela, hau kontuan izanik, kiroletxeko ekintzek jaso duten erantzunarekin baikor azaldu da Asier Mujika kirol teknikaria.



Uztailean zehar jende asko ari da tenisa praktikatzen

UDAn bi jokalaria berri

UDAnko preferenteak bi jokalaria berri eta lehen mailako erregionaletik igoko duten beste bost jokalaria izango ditu datorren denboraldiko berrikuntzak. Horien artean Angel Estevez atezain eibartarra dago eta Jonan Errasti Mondratik datorren eskoriatzarra, azken hau erdilaria. Horrez gain, lehen mailako erregionaletik bost jokalarik igoko dute talde nagusira. Bestalde, sei baja izango dira taldean, Asier Ingidua, Igor Gordobil, Xabi Idigoras, Sergio Fernández, Ivan Astola eta Igor Tola. Entrenatzaile lanetan, berriz, Iñaki Ceciaga arrasatearrak jarraituko du.

Lagun arteko partiduak

Preferenteak liga irailaren 5ean hasiko du eta lehen mailako erregionalak, berriz, irailaren 26an. Dena dela, hauen aurretik lagun arteko partidu batzuk jokatu dira. Lehena, abuztuaren 23an izango da, bertan Llodioko La Salle taldea eta UDAn arteko partidua izango da arratsaldeko 6,30etatik aurrera Ibarra futbol zelaian. Hilaren 26an, Gasteizko Ariznabarra eta UDAn goizeko 11etatik aurrera neurtuko dituzte indarrak. Azkenik, irailaren 2an Arrasateko torneoaren barruan UDAn-Bergara partidua jokatu da.

Joseba Larrinaga munduko txapelketara

Uztailaren 28tik 31ra bitartean Barzelonan egingo den munduko elbarrituen txapelketan izango dugu Joseba Larrinaga. Bertan 10.000 metroko lasterketan hartuko du parte. Joseba ondo moldatzen da distantzia luzeko ibilbidean eta fisikoki ondo aurkitzen dela kontatu digu. Dena dela, opor aurreko azken erronka honen ondoren, bere helburu nagusia atsedean hartzea izango da.

Futbitoko finala datorren asteazkenean

Arlutz futbito txapelketak aurrera darrai eta taldeek bederatzi partidu inguru jokatu dituzte. Momentuz A taldean hauexek dira punturik gehien dituzten ekipoak: Komando Alpargat, Peña Zurito, Killers, Felaciones públicas eta Rude boys. B taldean, berriz, Aldatz, Larringan, Goma 2, DDK eta La Once. Guztira hamar partidu jokatu beharko dituzte, horrela, talde bakoitzetik lau ekipo klasifikatu ahal izateko. Saikapen hau egunean ezagutuko da, ondoren, datorren astean astelehenean final laurdenak jokatu dira, martizenean final aurrekoa eta azkenik asteazkenean finala. Bertan ezagutuko dugu aurtengo Arlutz futbito txapelketako irabazlea.


San Ignazio pilota torneo

San Ignazio pilota torneo zapaturu jokatu da Iturrigorri frontoian. Bertan herriko eta inguruko herrietako junior eta infantil mailako pilotariak ari dira jokatu. Infantil mailakoak klasifikatu dira dagoneko eta finala San Ignazio egunez izango da. Andoni Altube eta Haritz Kortabarria atxabaltarrak Zuazua eta Agirre bikote arrasatearren aurka arituko dira. Bestalde, juniorretan finala nortzuk jokatu duten zapatu honetan erabakiko da Iturrigorri frontoian 11etatik aurrera.

Oier Aranzabal

Piraguismo saileko arduraduna

Uda aldera ur freska-garrietan ibiltzeko grina haunditzen den heinean, uretako kirolak egiten dituztenen kopurua ere haunditu egiten da. Horrela aurten 30 lagunetik gora federatu da Murruxoko piraguismo sailean. Horretaz arduratu da Oier Aranzabal piraguismo saileko arduraduna. Berak hurbilagotik ezagutarazteko aukera eman digu askorentzat ezezaguna den kirol hau.



• **Zeintzuk dira piraguismoko arduradunaren egin-beharrak?**

Hasiera batean bazkideak federatu behar dira, eskaerak Donostiara bialdu eta ondoren karnetak batu. Horretaz gain, piraguen mantenimenduaz arduratu behar da, hauek egoera onean daudela ikusi eta material berria erosi behar bada erosketez arduratu.

• **Zenbat federatu dira aurten Aretxabaletan?**

Aurten hogeitamar lagun federatu dira, iaz baino dexente gehiago. Kopuruak asko igo du aurten, gazte jendea izan da batez ere izena eman duena.

• **Piraguismoko federatuen artean antolatzen da ekintza berezirik?**

Beno, aurreko batean Urkulun dugun lokala txukuntzen aritu ginen hamar bat lagun. Piraguak ere konpondu genituen baina oraindik konponketarik egiteko gelditzen da. Beraz, aurrerago osterera ere horrelako saio bat egitea ondo legoke, gelditzen diren piraguak konponitzeko.

• **Zein izango litzateke aurrera**

“Hemen inguruan jendeak Albina, Landa eta Legutioko urtegiak aukeratzen ditu piraguan ibiltzeko”

begira zuen asmoa?

Taldetxo bat sortuko balitz ideia polita izango litzateke irteerak antolatzea, adibidez itsasora. Itsasoak urtegiak eskaintzen ez duen xarma berezia dauka, olatuekin borrokatzeak, inguru zabal batean aritzeak... itsasoan travesia politik egin daitezke.

• **Ez da arriskutsua?**

Ez, txalekoa jantzita eramanez gero ez, urtegian behintzat ez. Piraguak buelta ematea da gerta daitezkeen bakarra, baina txalekoa

izanez gero ez da ezer gertatzen.

• **Hemen inguruan zein lekutan ibiltzen da jendea piraguan?**

Urkulun esaterako ezin da ibili, aurten ez baitugu baimenik eskatu. Urbaltz aldeko zati txiki batean bakarrik ibil daiteke eta baimen hori lortzeko tramitazio dexente egin beharra dago, beraz, ez du merezi. Bestalde, jendeak Albina, Landa eta Legutioko urtegiak erabiltzen ditu. Itsasoa ere gertu daukagunez, kostaldea ere jende dexentek aukeratzen du piraguan ibiltzeko. Pirineotako errekek jaisten dituenik ere bada.

• **Zure ustez zer eskaintzen du piraguismoak?**

Uretako kirol bateaz disfrutatzeko aukera eskaintzen du. Fisikoki gorputzaren goiko alde lantzen da, normalean beste kirol batzutan lantzen ez dena. Horretaz gain, noizean behin bainutxo bat hartzeko aukera ere ematen du.

• **Teknika berezirik eskatzen du?**

Ez, ordubetea ikasi daiteke laku batean zuzen ibiltzen. Hori bai, beti txalekoaz ibili beharra dago eta itsasoan piraguara urik ez sartzeko tresna ere jarri behar da.

• **Urkulun piraguan ibiltzeko baimena kentzearen inguruan zein iritzi duzu?**


Beno hori ez dut txarto ikusten parke natural baten barruan egonez gero eta politika orokor baten ikuspegitik. Baina arrantzaleak eta kotxeak berdin-berdin jarraitzen dute Urkuluko urtegian. Horiek zilegi dira eta piraguismoa praktikatzeko leku txiki bat besterik ez dute uzten.

ETXE MOBEL

MUEBLES



ALTZARIAK



BI SOLAIRUKO ERAKUSKETA LOGELAK-SALOIAK

Araba Etorbidea 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tel. / Faxa: 943 79 41 82

ARRASATE

GRUPO **RK AUZ**

FAGOR 

ALTZARIAK

SUKALDE INTEGRALA



Araba etorbidea 20 • Tel. / Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA

Mitarte 3 • Tel. / Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA

Koruetako prozesioa

Koruetako Santiago Eliza, jada, XV. mendean aipatzen da Mondraueko Kabildokoak Obispoari bidalitako kartan bertako diruak jasotzea gura baitzuen. XVI. mendean, Miguel de Sardanetak landutako aldaera, goiko gangako giltzarriak, eta albo batera dagoen atea (gaur egun adreiluz itxita) egin ziren.

XVIII. mendean M. Martin Carrera arkitektoak aurreko aldaretokia eta ate berria ireki zituen.

Santiagorako bidea egiteko asmoz kostaldetik (Debatik) zetozen erromesak Deba bailara jarraituz Koruetatik pasa eta Gatzagatik Araba jotzen zuten (Gatzagak Arabako lurrekin duen mugan ere, Santiago ermita baitzegoen).

Bidea galduaz joan zen baina ez koruetarren Santiagorekiko zaletasuna, eta horregatik, eta lehengo ohiturari jarraituz, 1955. urteko uztailaren 25ean prozesioan (urtero lez) atera zuten Santiago irudi ederra anda gainean. Andak Otxandixon egin ziren 1867. urtean eta 240 erreal ordaindu zituzten auzokoek.

Argazkiko batzuk zoritxarrez desagertu bazaizkigu ere, zenbait koruetarrek kontatu digute orduko prozesio ohitura. Meza aurretik, eta alboko atetik aterata elizpetik zehar beheko bidera eta han buelta eman ondoren, berriz elizpera, eta gaur ezagutzen den atetik eliza barrura. Meza ondoren, soinu-jolea, eta gero etxean gonbidatuekin batera bazkari opiparoa.

Argazkia L. Pedro Peña-Santiago mendizale, etnografo eta Euskal Herriaren azken txoko guztiak ezagutzen zituen lagunak ateratakoa da. Bere omenez.

Argazkian andak eramaten: **Sebastian Zugasti**, Arbe baserrikoa; atzeko andan **Gregorio Galdos**, Zigorondo Bekoa; atzekaldean ezkerretik hasita: **Jose Mari Jauregi**, Zigorondo Goikoa; **Pedro Urrutia**, Urtitxikoa; **Francisco Abasolo**, Arenatza Etxeberrikoa eta **Hermenegildo Galdos** kaletarra.



Argazkia, informazioa eta testua: Aitor Antxia Leturia

**OSKAR
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 943 79 98 74
ARETXABALETA

**Jauregi
Okindegia**

Otalora, 10
Tfnoa: 943 79 57 47
Aretxabaleta

**Etxabe
harategia**

Durana 4
☎ 943 79 16 61

BITXITEGIA

**MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA**

BITXIEN-KONPONKETA
Otalora kalea
Eliza aurrealdean
Tfnoa: 943 77 13 57



LANA

- ◆ **Emakume bat behar** da haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Interesatuak 943 79 04 45 telefono zenbakira deitu.
- ◆ **Zerbitzari** euskalduna behar da. Tfnoa: 945 44 50 86
- ◆ **Neska prest**, etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Tfnoa: 943 77 17 42.
- ◆ **Zerbitzaria** behar da. Tfnoa: 945 44 50 86.
- ◆ **Neska prest** etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Tfnoa: 943 77 17 24.

Lan deialdi publikoak

- ◆ **Arrasaten bi udaltzain lanpostu.** Aurkezteko epea: BOEn argitaratzeko zain. Oinarriak; GAO, 99/6/22
- ◆ **Ansoainen lau udaltzain lanpostu.** Aurkezteko epea: 99/7/28. Oinarriak: NAO, 99/6/28
- ◆ **Nafarroako Foru Komunitatean informatikako erdi mailako teknikaria.** Aurkezteko epea: 99/7/23.

Langaiko lan eskaintza

- ◆ **Harakina.** Orereta. Erref. 21593/1
- ◆ **Fabrikazio burua.** Markina-Ondarroa. Erref. 22006/2
- ◆ **10 Analista programatzaile.** Bartzelona. Erref. 20789/2
- ◆ **Muntatzailea.** Erandio. Erref. 21566/3



Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu, deitu 943 79 86 21 telefonora edo 943 77 18 54 erantzungailura. Dohainik da.



DENETIK

- ◆ **LOGSE 2.** mailako neska bati gaztelerazko klaseak emateko pertsona bat behar da. Tfnoa: 943 79 71 32.
- ◆ **Ingeleseko eta euskarazko klase partikularrak** emateko pertsona bat behar da. 943 79 06 86.
- ◆ **Laredon, hondartza** ondoan, apartamentu bat alokatzen da uda osoan. Tfnoa: 843 79 52 80.
- ◆ **Gela bat hartu nahi dut** alokairuan Aretxabaletan. Tfnoa: 670 05 47 63.
- ◆ **Udan klase partikularrak** ematen dira 2. ESSOrarte. 943 79 25 62 Arantzazugatik galdetu.
- ◆ **Volkswagen Comby furgoneta** salgai. Guztiz ekipatuta. Tfnoa: 943 71 49 15, 21:00etatik aurrera.
- ◆ **San Migel merenderoa** alokatzen da Apotzagan. Tfnoa: 943 71 49 96
- ◆ **Datorren ikasturtean arratsaldez alemaneko klaseak** emateko irakaslea behar da. Tfnoa: 943 7900 69, 15:00etatik 18:00etara.

- ◆ **Flauta eta bibolinjolea** behar dira talde batean jotzeko. Tfnoa: 943 79 95 76 (Esteban).
- ◆ **Laredon pisu bat** alokatzen da irailean. Tfnoa: 943 79 31 47
- ◆ **Telefono mugikorra** galdu zen hilaren 14an herriko plaza-tik Portasolerako bidean. Norbaitek aurkitu badu 943 79 81 78 telefonora deitu.
- ◆ **Pastor Aleman txakurkumeak** salgai. Pedigriarekin. Tfnoa: 943 85 32 44 edota 696057346.



ETXEBIZITZA

- ◆ **Lokal komertziala** salgai edo alokagai dago Aretxabaletan, toki zentriko eta eguzkitsuan. Orain artean ileapaindegi eta edertze areto moduan funtzionatu du. Tfnoa: 943 71 12 70.
- ◆ **Baserri zahar bat** erosiko nuke berrizteko asmoz Deba Bailaran. Tfnoa: 649 67 19 14.
- ◆ **Etxe bat erosi nahi** genuke Aretxabaletan. Tfnoa: 943 79 86 21
- ◆ **57 m²ko garajea** salgai Errekabarren kalean. Tfnoa: 943 79 74 73.
- ◆ **Etxe bat erosi nahi** da Aretxabaletan. Tfnoa: 649 16 86 69.
- ◆ **Etxea erosi nahi** da Aretxabaletan. Tfnoa: 943 79 61 68.
- ◆ **Pisu jantzia** alokatu nahi da Aretxabaletan. Tfnoa: 943 79 05 99 edota 629918135 astegunetan (Donato).

LEIBAR

arrandegia

Mitarte Kalea, 1
Tfnoa: 943 77 13 79
ARETXABALETA



CONSUM EROSKI

Orain arrandegi eta okindegiaz, zatoz!

Mitarte kalea z/g 943 79 92 11
ARETXABALETA

Agur eta ondo izan



M. J. Arretxe

Seguru nago gehiengo oporrak hartzeko gelditzen zaizkizuen egunak zenbatzen ari zaretela. Nik ere horretan ematen dut egunaren zatitxo bat. Izan ere, lanean zein ikasten aritzearen zama lepo gainean gero eta astunagoa egiten da gauden data hauetan. Hala ere, eta hau oporrik izango ez duzuenoi zuzenduta dago, badakizue zer esaten duen bergarar famatu baten olerkiak, lepoan hartu eta segi aurrera. Ze erremedio.

Kontuak kontu, eta niri horrenbeste gustatzen zaizkidan txutxumutxuei helduz, zenbait gauzatxo kontatuko dizkizuet. Izan ere, nori ez zaizkio "kottilleoak" gustatzen? Ba, begira, Loramendik langile berria du. Leire Okaranza da bere izena eta Merkataritzako Hitzarmenaz arduratuko da. Eta Leireren sarrerarekin batera, Amaia Ugartemendiak eta Igor Etxabek utzi egingo dute.

Lan kontuekin jarraituz, Ainhoa Sagaribaiek Diario Vasco egunkarian Arrasateko kronikak

idatziko ditu. Hasia da dagoeneko zeregin honetan, eta Kepa Oliden orain arteko Arrasateko kronista oporretatik bueltatu bitartean jardungo du Ainhoak Arrasateko berriak ematen.

Kirolaren munduak ere badu berririk geure herri honetan. Atxabaltako pelotariak laugarren gelditu ziren herri arteko pelota torneoan. Hirugarren gelditzeko aukera ere izan zuten, baina aurka zuten bikote bergararrak kendu zien postu hori.

Barkatuko didazue, baina ezustean duda bat sortu zait. Kirolaz idazten jarraitu nahi nuen, baina musa kirola al da? Kirola izan ala ez, hemen jende askok praktikatzen du. Portasolgo jaietan antolatutako txapelketan berrogeita hamabi bikote aurkeztu ziren, eta ez zituzten, ez, nolana hiko sariak eraman. Lehenengo postua Emilio Casal eta Ricardo Barkerok osatutako bikotearentzat izan zen, bigarrena Carlos Diaz eta Rodrigo Fernandezek eraman zuten eta hirugarrena, Aitor Irure eta Jon Armentiak.

Horrez guztiak gain, eta Portasolgo jaiekin lotuta, esan buruhandiek istriputxo bat jasan zutela. Eskerrak burua bakarrik dute, hori galdu baitute; eta gainontzeko atalik izanez gero horiek ere bai seguru asko. Ezezagun batzuek apurtu egin omen zituzten. Nola? Ez omen zeuden, bada, dagokien toikian gordeta, kalean bazter batean baizik.

Bueno, bueno. Dagoeneko agurtzeko ordua heldu zait. Ondo pasatu oporrak. Ni, aurrekoan esan bezala, hondartza aldera joango naiz bikini berria estreinatzerara. Andramaixak arte. Musu handi bat.

Liburutegiko txokoa



La Navarra marítima

Egileak, Tomás Urzainqui eta
Juan M.º Odriozola
Pamiela Argitaletxea, 1998
(Ensayo y testimonio; 31)

Liburu honek Nafarroako erresumaren historiaren ikuspegi berri bat eskaintzen digu, orain arte egiazat genituen gauzak bestela gertatu zirela erakutsiz. "Navarra marítima" 1200. urtean Nafarroak galdu zituen lurraldeei deitzen zaie hemen; bertan sartzen ziren Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba ere besteak beste. Hau erakusteko lurralde hauetako Foruen ikerketa egin dute egileek, beste iturri batzuren artean.

Gure jatorria ezagutzea interesgarria gerta daiteke aldaketa garai hauetan lehenik jakiteko nondik gatozen, nora joan nahi dugun jakiteko.

Joseba Lopez de Armentia

uztaila

24

zapatua

SANTIXAUAK KORUETAN
Arratsaldeko 18:00etan **kanpai errepika** eta ostean **marrazki lehiaketa umeentzat**. 21:00etan **auzo afaria** eta 22:30ean **dantzaldia**.

ARATZEKO JAIA

Eskoriatzar eta atxabaltarren artean 50 lagun inguru bilduko dira Aratzeko jaiaren ospakizunean. **Apotzagako elkartean** elkartuko dira guztiak eguerdiko **12:00etan**. Bazkal aurretik hainbat jolas izango dira eta **14:30ak aldera bazkaria** elkartean bertan. Ostean, trikitilariak egongo dira eta ezindu bakoitzari opari bana egingo zaio. Amaitzeko, **19:00ak aldera herrira jaitsiko** dira.

25

domeka

SANTIXAUAK KORUETAN

Santiago eguna izanik, goizeko 11:30ean **kanpai errepika** izango da, 12:00etan, **meza nagusia** eta ostean **txikiteoa**. 17:00etan, gizezkoek **XI. Mus Txapelketa** jokatu dute eta emakumezkoek **VI. Briska Txapelketa**. Eta aurtengo Santixauerei amaiera emateko, arratsaldeko 18:00etan **haurrentzako jolasak** egongo dira.

SANTIXAUAK UGASTEIN

Eguerdiko 12:00etan **meza** ospatuko da Ugastein. Meza ostean, auzoan jarriko den txosna batean **poteoa** izango da eta ostean **bazkaria**. Ona eginez gero ermita aurrean izango da, eta curia egiten badu Altube baserriko ganbaran. Meza ostean **mus partida** eta auzoko **trikitilariekin dantza saioa** egongo da.

31

zapatua

SAN IGNAZIOAK MURUALDE ELKARTEAN

Urtero bezala, Murualde elkartekoek San Ignazio jaiak ospatuko dituzte. San Ignazio bezperan, **afaria** egingo dute gaueko 21:00ean **Basabeko akordeoilari-arekin kalejira** egin ostean. Igandean, San Ignazio eguna, 11:00etan **salda eta txorixoa** izango da hurbiltzen denarentzat eta ostean 12:00etan, **bolo txapelketa**.

Aretxagazetak ere oporrak hartuko ditu. Eskuetan duzuen hau da opor aurreko azken alea. Hurrengoa, irailaren lehen kaleratuko da. Bertan Andramaixetako argazkien bildumaxoa ikusi ahal izango duzue. Honekin, ondo pasatu oporrak eta Andramaixak arte.

GARBITU S. KOOP
Garbiketa orokorrak
Errekararren 3- Behea
Tfnoa: 943 79 01 28

OSKAR
HARATEGIA
Loramendi, 1
☎ 943 79 71 69

Mobiliario ARENAZA
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia, 1 - Tfnoa: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Martín
RELOJERIA - BITXITEGIA
Bere bezeroen zerbitzura
Mitarte, 16
Tfnoa: 943 79 01 72

Aldi/bi
943 71 20 02

*Bereziki: Harategia
Urdaitegia
Fruitategia*
IMANOL JANARI DENDA
Gorbea kalea ☎ 943 79 05 83

ITURGINTZA
J.J
Jose Jabier Irure
URA, GASA ETA KALEFAZIOA
Tfnoa: 943 79 07 34
943 79 31 87

DOIKALSE
Elektroerosio lanak
Basabe Poligonoa C-1-1
Aretxabaleta
Tfno: 943 79 82 44

lehiaketak



BEHARREZKO TELEFONOAK

JOKIN ZAITEGI ITZULPEN LABURRAK

Arrasateko AED Elkarreak, Jokin Zaitegi arrasatear idazleari jarraiki, euskaldungoari eskaini nahi dio, gai zehatz bati buruz sarritan eskuragaitza den mundu zabaleko zenbait informazio. Horregatik, **Jokin Zaitegi itzulpen laburren XIII. sariketa** deialdia zabaldu du. Gaia librea da, edozein hizkuntzatik itzulitako lanak aurkez daitezke, jatorrizko testuen lehen argitalpena 1996, 97, 98 edo 99 urteetan argitaratua egon behar da eta itzulpen lana inoiz argitaratu gabea izan behar da. Lanak helbide honetara bidaliko dira 1999ko urriaren 29 baino lehen: AED Elkarrea, Jokin Zaitegi sariketa, Pablo Uranga kalea, 4 behea, 20.500 Arrasate.

ABUZTU ETA IRAILERAKO MEZA ORDUTEGIA

- Astegunetan

- Astelehenetik ostiralera: komentuan arratsaldeko 7etan

- Larunbatetan: komentuan, goizeko 8etan, Hitzaren Liturgia

Hiletarik balego: komentuan goizeko 8etan, arratsaldez parrokian Hileta Meza ospatu ahal izateko.

Parrokian: Hileta Mezak soilik ospatuko dira betiko orduan.

- Jaietan eta jai bezperetan

- Jai bezperetan: komentuan ez da mezarik izango eta parrokian arratsaldeko 7:30ean izango da.

- Igande eta jai egunetan: komentuan goizeko 9etan. Parrokian, abuztuan eguerdiko 12etan eta irailean goizeko 11etan eta 12etan.

Mozanbiquen bizitako esperientzia



Eguakotxeko Atxabalta telebistako emanaldian Jose Mari Sarasuak Mo-

ren inguruan jardungo du Sarasuak ostiraleko saioan.

Oporren atarian gaudela eta, telebistak oporrak hartuko dituzte martitzenetik aurrera. Azken emanaldi horretan, Galartzako dorretxea erre zeneko argazki zaharra erakutsiko da. Irailetik aurrera berriz ere hemen izango ditugu telebistako saioak.

zanbiquen bizitako esperientzia ekarriko digu gogora. Jose Mari orain hilabete inguru joan zen bertara, hango herrialdeek bizi duten egoera ikusi eta zein behar dituzten antzemateko. Beraz, ho-

	MARTIZENA	EGUAKOTXA
20:00	ALBISTEAK Atxabaltako albisteak Gai orokorra Eguraldia	ALBISTEAK Atxabaltako albisteak Gai orokorra Eguraldia
20:20	KIROLAK	AGENDA
20:30		ATXABALTA EZAGUTZEN

Aretxabaleta

- Almen 943 71 49 07
- Aretxagazeta 943 79 86 21
- Basotxo 943 77 09 81
- Euskaltegia 943 79 21 68
- Gizarte-Laguntzailea 943 79 10 00
- Hezibide Elkarrea 934 79 31 32
- Industrialdea 943 79 62 80
- Institutua 943 79 79 00
- Kiroletxea 943 79 64 61
- Kultur-Etxea 943 79 01 05
- Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49
- Kurtzebarri B.H.I. 943 79 57 40
- Liburutegia 943 79 10 00
- Loramendi E.E. 943 77 09 70
- Ludoteka 943 79 05 81
- Murruxixo M.E. 943 79 93 74
- Musika Eskola 943 79 36 50
- Ortzadar 943 79 01 84
- Osasun zentroa 943 79 74 58
- Otalora 943 71 24 06
- Parrokia (Bulegoa) 943 79 18 42
- Pausoka Haur-Esk. 943 77 03 77
- Postetxea 943 79 28 31
- Santa Rita Ikastetxea 943 79 17 00
- Saretxo 943 71 26 56
- Taxi Geltokia 943 79 22 33
- Udal Bulegoak 943 79 10 00
- Udaltzaingoa 943 79 10 52
- Urats Gain 943 79 99 11

Udaltzaingoa

- Arrasate 943 79 14 39
- Bergara 943 77 91 06
- Eskoriatza 943 71 44 07
- Oñati 943 78 04 11

Larrialdiak

- SOS Deiak 112
- Eskualde-Ospitalea (Arrasate) 943 03 53 00
- Ertzaintza 943 79 71 99
- Gurutze-Gorria 943 76 55 76
- Larrialdiak 943 46 11 11
- Suhiltzaileak (Oñati) 943 78 28 00

Garraioak

- Pesa 902 10 12 10
- Renfe (Gasteiz) 945 23 02 02
- Renfe (Zumarraga) 943 72 15 15



koruetarrek oraindik jaietako txispa ez dute galdu eta datorren astebukaceran Santixauak ospatuko dituzte. Angel Mari Koruetako auzoalkatea ere bertan izango da jaietz gozaten. Koruetar honek asko apreziatzen du auzoan jaiak antolatzen jarraitu ahal izatea.

• **Noiztik zaitugu Koruetako auzoalkate?**

Lau urtean aritu naiz lan horretan eta hauxe dut momentuz behintzat azken hilabetea.

• **Eta ostera zeuri fokatzuz gero, zer?**

Aurrera.

“Harro egon gaitezke auzoko jaiak mantentzen direlako”

• **Poztasun, prestigio ala burukomin gehiago ematen du auzoalkate izateak?**

Prestigiorik ez, burukomin gehiago.

• **Zer nolako lana suposatzen du?**

Ez da lan handia, udaletxeko batzar batzuetara joatea, auzoan egin behar den lan berezi batez arduratu...

• **Nola aukeraten da auzoalkatea?**

Auzotarren botuaz.

• **Korueta zer moduzko auzoa da bizitzeko?**

Oso lasaia eta polita gainera.

• **Auzotarra izateak nortasun berezia ematen du?**

Bai, nik uste dut baietz.

• **Zenbat biztanle ditu Koruetak?**

27 bat.

• **Zer eskaintzen du baserriak?**

Lasaitasuna, baina era berean lan handiagoa, beti dago-eta egitekoren bat.

• **Santixauetarako dena gertu?**

Beti izaten da azken momentuan egiten den zeozer, baina bestela dena gertu.

• **Zer egoten da?**

Meza, afaria, musika, mus eta briska txapelketa, jokuak...

• **Nork antolatzen ditu?**

Auzotarrek, bereziki emakume taldetxo batek. Eskerrak jaiak bizirik dirauten,

beste auzo batzutan galduta baitaude.

• **Andaluzia ondo ezagutzen duzu, zein desberdintasun dago euskaldun eta andaluzen artean?**

Andaluzak zabalagoak dira, giro onekoak. Egunekoaz gehiago arduratzen dira.

• **Zer ekarriko zenuke Andaluziatik eta hemendik hara eramango?**

Eguraldi ona ekarriko nuke eta euri pixkat eramango hemendik.

• **Baina zein gurago duzu Euskal Herria ala Andaluzia?**

Euskal Herria.

• **Beroa ala hotza nahiago duzu?**

Beroa.

• **Hiri haundi batean biziko zinate?**

Ez, jende larregi dago hiri batean.

• **Suge asko dabil bazterrotan aurten?**

Nik ez dut oraindik bat ere ikusi, nik uste dut beste urte batzuetan baino gutxiago.

• **Zein etxeko lan egiten duzu?**

Plantxa eta sukaldeko lana izan ezik beste guztia.

• **Besteengan gehien apreziatzen duzuna?**


Zintzotasuna.

• **Izen bat?**

Oihane.

KOMIKIA

BALITXAKUK (Hikaz berbetan)



Mikel Arroiabe

TABERNA eta JATETXEEN GIDA

Zaraia taberna

**MANTEKA
ANAIAK**

*Goizeko 5,30etatik
zura zerbitzura*

Araba Ibilbidea, 20 • 943 79 88 95

Haizea taberna



Mitarte, z/g • ARETXABALETA
Tfnoa: 943 79 85 57

Artano taberna

**Herriko
plazan
ARTANO**

Girorik onena

Herriko plaza, 3 • 943 79 62 75

Gurea taberna

**Jatetxea eta
taberna**

GUREA

Eguneko menuak

Durana kalea • 943 79 20 64

Basabe jatetxea

*Menu eta
afariak*
**BASABE
JATETXEA**

Basabe poligonoa • 943 79 91 84

Arlutz taberna



Gustoko musika

Mitarte, 16 • ARETXABALETA
Tfnoa: 943 79 32 34

Ezkutu taberna



Mitarte, 9 • 943 79 92 01

Goyaran erretegia



GOYARAN ERRETEGIA
• Pannila espezialitatea

Solohaundi-8 ARETXABALETA
943 79 68 57

Mendiola erretegia



◆ Bazkari
eta afariak

Astelehenetan
itxita

Mendiola auzoa • Eskoriatza

Bazter alde jatetxea



**Sasoiko
jakiak
giro
onenean**

Galartza auzoa
943 79 24 58
ARETXABALETA


Dorleta taberna

Dorleta

Bezeroen zerbitzura

Loramendi 8 • ARETXABALETA
943 79 94 15

Mitartegarai



Arientza auzoa
Aretxabaleta
Tfnoa: 943 79 17 51



Josu harategia

- Urdaitegia-gozotegia
- Kroasantegia
- Gertatutako janariak

Josu harategia

Mitarte, 1 • ARETXABALETA
Tfnoa: 943 77 03 08

Taberna Berri



*Taberna Berri
Jatetxea*
Durana, 26 • ARETXABALETA
943 79 20 67

Urbaltz taberna



Mitarte, 21 behea
Tfnoa: 79 79 79
ARETXABALETA

Aldi bi

JAIOBERRIAK GARA

ETA AURRETIK GOAZ

BIGARREN ESKUKO AUTOAK SALTZEN DITUGU



Grupo
Nortekar

BILBOCASION

Jaen, 11
Tel.: 94 410 16 61
BILBO

AUCASA

P. Larramendi, 10
Tel.: 94 410 39 39
BILBO

ALDIK

Mallabiena auzoa, 4
Tel.: 94 681 67 66
IURRETA

ALDIBI

Zigarrola, 1
Tel.: 943 71 20 02
ARRASATE

ALDIBI

Olaso pol., z/g
Tel.: 943 74 20 37
ELGOIBAR

**ALDIKAR
ALMOVIL**

Colon pas., 27
Tel.: 943 27 09 99
DONOSTIA

**ALDIKAR
ALMOVIL**

Oria etorbidea, 6
Tel.: 943 27 09 99
LASARTE